

# POP-PRO

**pop artea:** Arte garai bakoitzeko espirituaren testuinguru soziologikoan integratzea; dadaisten mugimendua hasi zen aurrena egiteko horrekin eta gero pop artearen funtsezko bokazioa izatera etorri da; pop artea dadaismoaren garai beretsuan sortu zen, baina harengandik guztiz independente, Estatu Batuetan eta Ingalaterran. Pop arteak, mintzaira plastiko garbia erabiliz, gaur egungo eguneroko bizitzako gauzak arte-obren mailara altxatzen ditu eta, urruntasunaren hoztasunarekin, kontsumoko artikulu arrunten sedukzio estetikoan jartzen du begirada, ohiki beren erabilgarritasun hori beste justifikaziorik izaten ez duten eta horretaz landa, apenas estimarik izaten duten objektu horietan. *Pop art* figurazioa deitu den honetarako eboluzioa, Robert Rauschenberg-en *combine painting* izenekoekin sartu zen arte iparamerikarrean, hark erostetxe handietako artikuluak eta hondakinak produktuak sartzen baitzituen bere koadro pintatuetan, adibidez fotografiak eta trapu-puskak. Garai inguru hartantxe pintatu zituen Jasper Johnsek ere bere bandera-koadroak (1958) eta bere *Campbell zerbeza-lata* surrealistak, beren kolore bortitz eta sinpletasun bipileko mintzaira zuzenekoaren bitartez, espresionismo abstraktuari buruzko antitesi ironiko bat formulatzen dutenak. Ameriketako dadaisten anti-arte azalpenek pop artearen zelula ernatzailea osatzen zuten bitartean, pop art ingelese ere esnatzen ari zen azpikultura herritar autonomo baten gain oinarrituz, hain zuzen zabalpen-bide bezala publikitateko iragarkiak, bihotzeko aldizkariak eta fikzio-zientziako ilustrazioak erabiltzen zituen kulturaren. Claes Oldenburg, Roy Lichtenstein, Andy Warhol, Tom Wesselmann, James Rosenquist, Mel Ramos, Wayne Thiebaud eta Edward Ruscha, New Yorkeko esparruko eta Ipar Amerikako ekialdeko kostako artista pop ezagunek, neonezko iragarki modernoetako kolore-eskalatik hartutako pintura fluoreszente zalapartatsuak erabiltzen zituzten, eta beren gaien katalogoan erostetxe handietako eta ikuskizunen industriako subkulturari erantsi zioten eskua, era horretan eguneroko

gauzak eta ikusmoldeak eraldatuz (enfasi hotz batez baliatuz), eta abiapuntutzat objektu horien izateko arrazoi zirkunstantziala hartuz, kartelaren nabarmentasun superlatiboan: Claes Oldenburg-ek telefono ikaragarriak fabrikatu zituen, lonazko lababo eta argi-etengailuak, eta tarta eta saltxitza-bokadilo erraldoiak egin zituen; Wesselmann-ek bere Great American Nudes izenekoetan, Pin-up Glamour-ak enblema estilizante bihurtu zituen, eta Andy Warholek aldarrikatu zuen ezen zopa-latak edota Coca-Cola botilak, pantailako edo rock-and-rolleko idoloak bezain *superstar* zirela. Lichtenstein-ek komikietako irudi arrunten eduki estetiko nabarmendu nahi izan zuen, retikula bidez pintatutako taula ikaragarri handitan jarriz urruti-antzerak; Ipar Amerikako ekialdeko kostako artistak, propaganda grafikoaren teknikak eta bere ondorioak esplikatzeko saiatu ziren, erreproduzio supranatural baten superdoitasunarekin. Pop art iparamerikarrean ikonografia estilizantea nagusitu zen bitartean, David Hockney, Allen Jones, Richard Hamilton, Peter Blake, Peter Phillips, Jim Dine eta R.B. Kitaj-en pop art ingelesean, inprobisaziozko keinu bapatekoez baliatuz, sentimendu indibidual eta momentukoaren elementu espresiboak jaso nahi izan ziren. Bi korronte horientzako alderdi komuna, momentu bakoitzeko gai eta alderdi egunegunekoetan kontzentratzeko joera izan zen, eta baita collage-aren teknika erabiltzea ere, hain zuzen ere, koadroan zehaztasun ironiko eta estridente guztiz baldintzatua dagoen gizakiaren eduki bitala plasmatzeko asmoarekin, alegia kontsumismo bezala hartutako fetixismo sozialarekin eta idolo arrunt eta solasmendu hutsalezko premiekin baldintzatua dagoen gizakiaren edukia plasmatu asmoz. Beraz, pop arteak industrialki determinatutako zibilizazio baten inguruabarrak azaltzerakoan, kultura merkantilista modernoaren panegiriko eta kritika bat ekartzen ditu, artea ere merkatu-mekanismoan integratzen duen neurrian: "Pop artea saiatzeko da, batere ilusiorik gabe, gauzei beren kabuz hitz egiten uzten" (Warhol).

## post-painterly abstraction (ikus abstrakzio berria)

**pressage:** Arte objektualaren barruan, César neorrealistak praktikatu zuen metalezko objektuen prentsaketa hogeita hamarreko eta hogeita hirurogeiko urteetan. Césarrek arte-obra deklaratu zituen mekanikoki zantutako automobilak eta hauen akzesorioak, alusiozko gesto honekin nabarmen utziz gaurko barruan suntsipen erabatekoaren fenomeno dagoela propietate sor moduan, gaurkotasan iraunkorreko errealtate moduan.

**project art:** Arte kontzeptualaren aldaera den aldetik, helburu bezala ingurugiroaren konfigurazio aldagarri bat daukaten esbozoak ekartzen ditu, horren bitartez, alde batetik nabarmen jartzeagatik errealtatearen izaera prozesuala ikuspegi eta egintzen eraldakuntza bezala hartuta = denboraren igarantza bezala hartuta, eta, aldi berean, aldaketa hori dokumentatzeagatik gogamen planifikatzailearen eta fantasia sortzailearen bitartez atzi nahi den helburua lortzeko posibilitate bezala. Beraz, bai project artean eta bai arte objektualean, plangintza artistikoa bera, kontzeptua, bihurtzen da gogotara ekarritako problema nagusi, hau da, desmaterializazio-prozesu radikal baten bitartez artea "errealitate artistiko mental" moduan kontzentratzen da. Konfigurazioa Konfigurazioaren beraren, forma hutsean hartutakoaren, baldintzak gogoetartzen eta bistaratzen dira.

**proletkult:** Stalinekin boterea hartu zuenean, politika kultural errusiarra partiduaren eragin-eremuan erori zen, Leninen garaian baino gogorrago oraindik. Iraultza bukatu eta berehala sortutako arte-munduko artekorronte abangoardistak bigarren maila batera pasa ziren, eta Proletkult mugimenduari sustapen indartsua eman zitzaion kultura benetan proletario bat lortzeko bere asmo hori aurrera atera nahirik. Proletargoak bere klase-arte propio bat lortu behar zuen, sozialismoaren aldeko borrokan bere indarrak antolatzen lagun ziezaien. Proletkult honen funtsean ideia bat aurkitzen zen oinarri-oinarrian, alegia alderdi komunistak bere jardura politiko eta ekonomikoarekin batera lan kulturala ere bere metodo propioekin landu behar zuela. Oinarriko programa hori sustatzeko erakusketa mugikor ugari antolatu ziren, fabrikako bizitza proletarioa, nekazaritza-lanaren kolektibizazioa, armada gorria eta mugimendu iraultzailea goraiatzeko zuzutena. Proletkult mugimendua langile iraultzailea azaltzen du heroia-prototipo moderno bezala, eta partiduaren kontsigna politiko borrokarietara bakarrik mugatzen du bere gaien eremua. "Herriari arte bizi eta ulergarri bat ematea, eguneroko bizitzaren ispilu leial izango dena, hori da gizartearen lehenengo eginkizuna..." (Stanovlenie). ■